2. Zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu eta hilabetean emango da gehienez ere ebazpena, edo eskabideen akatsak zuzendu eta hilabetean. Ez bada onartzen eskaera, arrazoitu egingo da ebazpena. Aipatutako epean ez bada ebazpenik ematen, berriz, jo beharko da eskaera ez dela onartzen.

3. Epeak, zenbatekoak eta gainerako baldintzak zehaztuko ditu zor baten ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartzeko ebazpenak. Epeak eta baldintzak eskatutakoez bestelakoak izan ahalko dira.

Era berean, interesen kalkulua adieraziko du ebazpenak, eta ohartaraziko du zer ondorio dituen bermea ez jartzeak, ordainketak ez egiteak edo ezartzen diren gainerako baldintzak ez betetzeak.

4. Baldin eta ordaintzeko obligaziodunaren egoera ekonomikoa dela-eta Administrazioak irizten badio egokia dela, salbuespen gisa, udal-diruzainaren ebazpen bidez zorraren zenbatekoa 6.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa bada eta alkatearen edo hark ordezkari izendatzen duen zinegotziaren ebazpen bidez zorraren zenbatekoa 6.000,01 eurokoa edo hortik gorakoa bada, geroratutako edo zatikatutako zorrak ordaintzeko epeak desberdinak izan ahalko dira aipatutakoen aldean.

*13. artikulua. Eskabidea aurkeztearen ondorioak.*

1. Baldin eta borondatez ordaintzeko epean dagoen zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen bada, ez da hasiko hura nahitaez ordaintzeko epea, baina berandutze-interesak berdin-berdin sortuko dira.

2. Zorrak nahitaez ordaintzeko epean, enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia obligaziodunari jakinarazten zaion arte aurkeztu ahalko da ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera.

Zor baten ordainketa geroratzea edo zatikatzea izapidetu bitartean, premiamendu-prozedura hasi edo jarraitu ahalko da, baina enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak bertan behera geratuko dira harik eta ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera ez onartzeko ebazpena jakinarazten den arte.

3. Baldin eta premiamendu-probidentzia jakinarazitakoan eskatzen bada zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, hark emandako epea amaitutakoan (alegia, Zergen Foru Arau Orokorraren 61.5. artikuluak finkatzen duena), enbargo-

2. En relación con los fraccionamientos, la Tesorería municipal fijará los criterios, en relación con cada opción, del número de plazos de pago en función de la cuantía de la deuda.

Estos criterios serán de aplicación asimismo a las solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos de cantidades adeudadas a la Hacienda Municipal por conceptos no tributarios.

3. En los fraccionamientos la periodicidad de pago de los plazos será mensual.

4. Excepcionalmente, por Resolución de Alcaldía, y por razones debidamente motivadas, se podrán concederán fraccionamientos y/o aplazamientos por un número mayor de fracciones o por periodos más largos que los enumerados en los apartados 1 y 2.

*Artículo 12. Resolución.*

1. La resolución corresponde al Alcalde, quien podrá delegar esta atribución según conceptos, cuantías y plazos de aplazamiento solicitados.

No obstante, las solicitudes de aplazamiento-fraccionamiento que se refieran a deudas cuyo importe no exceda de 4.000,00 € serán resueltas por el/la Tesorero/a municipal. Asimismo, compete al Tesorero/a el dictado de los actos administrativos necesarios para el cumplimiento y/o modificación de las condiciones de los aplazamientos-fraccionamientos concedidos por el/la mismo/a.

2. Las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento se resolverán en un plazo máximo de un mes desde la fecha de su presentación, o desde la fecha de subsanación de deficiencias. Si la resolución es desestimatoria, será motivada. Si no se produce resolución en este plazo, debe considerarse desestimada.

3. La resolución que conceda el aplazamiento o el fraccionamiento especificará los plazos, cuantías y demás condiciones de los mismos. La resolución podrá contener plazos y condiciones distintas de los solicitados.

En la resolución se indicará también el cálculo de los intereses y de los efectos que se producirán de no presentarse la garantía, en caso de falta de pago y en caso de incumplimiento de las demás condiciones que se hayan estipulado.

4. Cuando la situación económica del obligado al pago, discrecionalmente apreciada por la Administración así lo aconseje se podrá, con carácter excepcional, y por Resolución del Tesorero municipal, en el caso de deudas por importe inferior a 6.000,00 € y, del Alcalde o Concejal en quien delegue, en el resto de los casos, concederse aplazamiento o fraccionamiento en plazos diferentes a los señalados anteriormente.

*Artículo 13. Efectos de la presentación de las solicitudes.*

1. La presentación de una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento en periodo voluntario impedirá el inicio del periodo ejecutivo, pero no el devengo del interés de demora.

2. Las solicitudes en periodo ejecutivo podrán presentarse hasta el momento en que se notifique al obligado el acuerdo de enajenación de los bienes embargados.

Se podrá iniciar o, en su caso, continuar el procedimiento de apremio durante la tramitación del aplazamiento o fraccionamiento. No obstante, deberán suspenderse las actuaciones de enajenación de los bienes embargados hasta la notificación de la resolución denegatoria del aplazamiento o fraccionamiento.

3. Solicitado un aplazamiento o fraccionamiento una vez notificada la providencia de apremio y finalizado el plazo concedido en la misma, es decir, el plazo previsto en el artículo 61.5 de la NFGT, se suspenderán las órdenes de embargo; ello no

EK\CV GAO-I-2016-08973

aginduak ezeztatu egingo dira. Alabaina, eskaera aurkeztu aurretik izapidetutako enbargo-aginduek aurrera jarraituko dute, eta dagozkien ondorioak izango dituzte.

*14. artikulua. Ordainketa aurreratuak.*

1. Zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatutakoan, ordaintzeko obligaziodunak zorraren zenbateko osoaren edo zati baten ordainketa aurreratu ahalko du. Horrelakorik egiten badu, Bilketa Bulegoari jakinarazi beharko dio dirua sartu duela. Hala ere, horrek ez du esan nahi zorraren ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartuko zaionik.

2. Era berean, prozedura ebazten den bitartean, zorra ordaintzeko behin-behineko egutegi bat finkatu ahalko da, arrazoitua, harik eta zorraren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera ebazten den arte.

3. Baldin eta zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaera izapidetu bitartean eskatzaileak zor osoaren zenbatekoa sartzen badu, eskaerari uko egiten diola joko da.

*15. artikulua. Berandutze-interesak.*

1. Geroratzen edo zatikatzen diren zenbatekoek, premiamendu-errekarguak izan ezik, berandutze-interesak sortuko dituzte, borondatez ordaintzeko epea amaitzen denetik, geroratzeak irauten duen bitartean.

Hala ere, 1.200,00 euroko edo hortik beherako zorren ordainketa geroratzen edo zatikatzen bada, ez da berandutze-interesik sortuko.

2. Geroratzen den zor baten interesak zorra ordaintzerakoan likidatuko dira. Zatikatzen den zor baten interesak, berriz, zorraren kuota bakoitza ordaintzerakoan likidatuko dira; horretarako, printzipalari, errekarguari eta berandutze-interesei dagokien zatia hainbanatuko da. Alderik badago zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzen denean kalkulatzen diren berandutze-interesen eta berez ordaindu behar direnen artean, eskatzailearen aldekoa edo kontrakoa izan, ordaindu beharreko azken kuotarekin batera jasanaraziko da.

3. Interes-tasa unean-unean Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen berandutze-interesaren tasa izango da, zeina Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak onartzen dituen foru-arauaren bidez onartzen den.

*16. artikulua. Bermeak.*

1. Geroratzen edo zatikatzen diren zorrak ordaindu egingo direla bermatzeko, oro har, kreditu-erakunde edo elkar bermatzeko sozietate baten abal solidarioa jartzeko berariazko eta ezin ezeztatuzko konpromisoa hartu beharko dute eskatzaileek, edo kauzio-aseguru baten ziurtagiria aurkeztu, salbu eta bermea jartzetik salbuetsita badaude edo bestelako berme bat onartzeko eskatzen badute.

2. Baldin eta justifikatzen bada abal edo ziurtagiri hori lortzea ezinezkoa dela edo jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna arrisku larrian jartzen duela, berme hauetakoren bat jarri beharko dute eskatzaileek, ondoko lehentasun-ordenaren arabera:

a) Ondasun higiezin baten gaineko hipoteka.

b) Ondasun higigarri baten gaineko hipoteka.

c) Bahia, edukitza lekualdatuta edo gabe.

d) Fidantza pertsonal eta solidarioa.

e) Nahikoa irizten zaion beste edozein.

3. Zorra borondatezko epean ordaintzeko zenbatekoa eta ordainketa geroratze edo zatikatzeak sortzen dituen berandutze-interesen zenbatekoa hartuko du barnean bermeak, gehi bi kopuruen baturaren %25.

4. Zor baten ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartzeko erabakia jakinarazi eta bi hilabetean jarri beharko da bermea, eta bermea formalizatzeari lotuta egongo da ordainketa

obstante, todas aquéllas órdenes de embargo tramitadas con anterioridad a la presentación de la solicitud seguirán su curso, produciendo los efectos pertinentes.

*Artículo 14. Pagos anticipados.*

1. Una vez solicitado el aplazamiento-fraccionamiento, la persona obligada al pago podrá anticipar total o parcialmente el pago de la deuda, comunicando dicho ingreso a la Recaudación municipal. No obstante, ello no presupone la concesión del mismo.

2. Asimismo, y durante el plazo de resolución del procedimiento, podrá establecerse de forma motivada un calendario provisional de pagos hasta la resolución de la solicitud de aplazamiento-fraccionamiento.

3. Si durante la tramitación la persona solicitante realizase el ingreso de la totalidad de la deuda, se entenderá que desiste de su petición.

*Artículo 15. Intereses de demora.*

1. Las cantidades aplazadas o fraccionadas excluido, en su caso, el recargo de apremio, devengan intereses de demora, desde el final del periodo voluntario y por el tiempo que dure el aplazamiento.

No obstante, no devengarán intereses de demora los aplazamientos y fraccionamientos solicitados por deudas cuyo importe sea inferior a 1.200,00 €.

2. La liquidación de intereses de un aplazamiento se realizará en el momento del pago aplazado. La liquidación de intereses de un fraccionamiento se realizará en cada cuota fraccionada, prorrateando en la misma la parte de principal, recargo e intereses de demora. Las diferencias, positivas o negativas, respecto a los intereses de demora calculados en el momento de la concesión, se repercutirán en la última cuota exigible.

3. El tipo de interés será el de demora del Territorio Histórico de Gipuzkoa en cada periodo, que se aprueba en la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio.

*Artículo 16. Garantías.*

1. Para garantizar los aplazamientos-fraccionamientos de deuda, como regla general el solicitante deberá presentar compromiso expreso e irrevocable de aval solidario de entidad de crédito o sociedad de garantía recíproca o certificado de seguro de caución, salvo para los casos de dispensa de garantía o de solicitud de admisión de otra forma de garantía.

2. Cuando se justifique que no es posible obtener dicho aval o certificado o que su aportación compromete gravemente la viabilidad de la actividad económica, la persona solicitante deberá ofrecer, en el orden que se establece a continuación, alguna de las siguientes garantías.

a) Hipoteca inmobiliaria.

b) Hipoteca mobiliaria.

c) Prenda con o sin desplazamiento.

d) Fianza personal y solidaria.

e) Cualquier otra que se estime suficiente.

3. La garantía cubrirá el importe de la deuda en periodo voluntario y de los intereses de demora que genere el aplazamiento-fraccionamiento, más un 25 por ciento de la suma de ambas partidas.

4. La garantía deberá aportarse en el plazo de dos meses siguientes al de la notificación del acuerdo de concesión del aplazamiento-fraccionamiento, que estará condicionado a su

EK\CV GAO-I-2016-08973

geroratzea edo zatikatzea. Bi hilabeteak igaro eta bermea formalizatzen ez bada, zorraren ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartzeko erabakia ondoriorik gabe geratuko da.

*17. artikulua. Bermea jartzeko betebeharraren salbuespena.*

1. Egoera hauetan, eskatzailea bermea jarri behar izatetik salbuetsi ahalko da, erabat edo partzialki:

a) Eskatzailea lurralde-mailako administrazio publiko bat edo haren erakunde autonomo bat denean, beti.

b) Zorraren guztizko zenbatekoa 3.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean.

c) Zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzen denean, kuotak ordaintzeko epeak hilabetekoak direnean, zorraren guztizko zenbatekoa 6.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean eta, gainera, ordainketa gehienez ere hamabi epetan zatikatzen denean.

d) Zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzen denean, kuotak ordaintzeko epeak hilabetekoak direnean, zorraren guztizko zenbatekoa 12.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean, ordainketa gehienez ere hamabi epetan zatikatzen denean eta, gainera, eskatzaileak zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzerakoan zatikatu beharreko zorraren zenbatekoaren %20 sartzen duenean gutxienez.

e) Zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzen denean, kuotak ordaintzeko epeak hilabetekoak direnean, zorraren guztizko zenbatekoa 25.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean, ordainketa gehienez ere hemezortzi epetan zatikatzen denean eta, gainera, eskatzaileak zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzerakoan zatikatu beharreko zorraren zenbatekoaren %20 sartzen duenean gutxienez.

f) Zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzen denean, kuotak ordaintzeko epeak hilabetekoak direnean, zorraren guztizko zenbatekoa 50.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean, ordainketa gehienez ere hemezortzi epetan zatikatzen denean eta, gainera, eskatzaileak zorraren ordainketa zatikatzeko eskatzerakoan 25.000 euroko zenbatekoa sartzen duenean gutxienez (alegia, zatikatu beharreko zorraren zenbatekoa 25.000 eurokoa edo hortik beherakoa denean).

— Aurreko atalek aipatzen dituzten zenbatekoak zordun bakoitzaren zor guztiei dagozkiela jo beharko da.

— Aurreko atalek aipatzen dituzten gutxieneko diru-sarreren zenbatekoa kalkulatzeko, honako hau hartuko da «zatikatu beharreko zorraren zenbatekotzat»:

a) Nahitaez ordaintzeko epean dauden zorrei dagokienez, borondatez ordaintzeko epean zor zen zenbatekoa gehi premiamendu-errekargu arruntaren zenbatekoa.

b) Gainerako zorrei dagokienez, borondatez ordaintzeko epean zor zen zenbatekoa.

2. Aurreko atalek arautzen dituzten egoeretatik kanpo, salbuespen gisa, salbuespena behar bezala arrazoituta, Diruzaintzaren ebazpen bidez zorraren zenbatekoa 4.000,00 eurokoa edo hortik beherakoa bada eta Alkatetzaren ebazpen bidez zorraren zenbatekoa 4.000,01 eurokoa edo hortik gorakoa bada, bermea jartzeko betebeharretik salbuetsi ahalko da eskatzailea, erabat edo partzialki.

*18. artikulua. Geroratutako zenbatekoak ez ordaintzea.*

1. Zor baten ordainketa geroratzen denean, borondatez ordaintzeko epean egiten bada ordainketa geroratzeko eskaera, nahitaez ordaintzeko epea hasiko da, eta geroratutako zorra eta sortutako interesak ordaintzeko eskatuko da, baita nahitaez ordaintzeko epeari dagokion errekargua ere.

Ordainketa geroratzeko eskaera nahitaez ordaintzeko epean egiten bada, berriz, besterik gabe, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du, eta, dagokionean, lehenik, bermea gauzatu ahalko da.

formalización. Transcurrido el plazo de dos meses sin formalizar la garantía, quedará sin efecto el acuerdo de concesión.

*Artículo 17. Dispensa de garantías.*

1. Podrán dispensarse total o parcialmente de la constitución de garantía en los casos siguientes:

a) En todo caso, cuando el solicitante sea una Administración Pública territorial o sus organismos autónomos.

b) Cuando las deudas totales sean de una cuantía inferior a 3.000 €.

c) Cuando se trate de solicitudes de fraccionamiento de pago con vencimiento mensual, en los que el importe total de las deudas no supere los 6.000 euros y el plazo de fraccionamiento no exceda de doce meses.

d) Cuando se trate de solicitudes de fraccionamiento de pago con vencimiento mensual, en los que el importe total de las deudas no supere los 12.000 euros, el plazo de fraccionamiento no exceda de doce meses y la persona solicitante ingrese al realizar la solicitud un importe mínimo de 20 por ciento de la deuda a fraccionar.

e) Cuando se trate de solicitudes de fraccionamiento de pago con vencimiento mensual, en los que el importe total de las deudas no supere los 25.000 euros, el plazo de fraccionamiento no exceda dieciocho meses y la persona solicitante ingrese al realizar la solicitud un importe mínimo de 20 por ciento de la deuda a fraccionar.

f) Cuando se trate de solicitudes de fraccionamiento de pago con vencimiento mensual, en los que el importe total de las deudas supere los 50.000 euros, el plazo de fraccionamiento no exceda de dieciocho meses y la persona solicitante ingrese al realizar la solicitud un importe mínimo de 25.000 euros de manera que la deuda a fraccionar no supere los 25.000 €.

— Respecto de las cuantías previstas en los apartados anteriores, deben de considerarse referidas a cada deudor por la totalidad de sus deudas.

— A los únicos efectos del cálculo del importe de los ingresos mínimos a los que se hace referencia en los apartados anteriores, se entenderá que «la deuda a fraccionar», es:

a) Para las deudas en periodo ejecutivo de pago, el importe debido en periodo voluntario y no ingresado, más el equivalente al recargo de apremio ordinario.

b) Para el resto de las deudas, el importe debido en el periodo voluntario de pago no ingresado.

2. Fuera de los supuestos previstos en el apartado anterior, sólo en casos excepcionales debidamente justificados, por Resolución de la Tesorería en los supuestos deudas cuyo importe no exceda de 4.000,00 € y de la Alcaldía, en el resto de los casos, podrá dispensarse total o parcialmente la prestación de garantías exigibles.

*Artículo 18. Impago de cantidades aplazadas.*

1. En los aplazamientos, si el aplazamiento fue solicitado en periodo voluntario se iniciará el periodo ejecutivo y se exigirá la deuda aplazada y los intereses devengados con el recargo del periodo ejecutivo que corresponda.

Si el aplazamiento fue solicitado en periodo ejecutivo, se proseguirá sin más el procedimiento de apremio que se hubiese iniciado, pudiéndose ejecutar, en su caso, en primer lugar la garantía existente.

EK\CV GAO-I-2016-08973

2. Zor baten ordainketa zatikatzen denean, borondatez ordaintzeko epean egiten bada ordainketa zatikatzeko eskaera, bi epe ordaintzen ez badira, ordaintzeko dauden gainerako epeak amaitu egin direla joko da, eta nahitaez ordaintzeko epea hasiko da: besterik gabe, ordaindu gabeko zorra ordaintzeko premiamendu-probidentzia emango da.

Ordainketa zatikatzeko eskaera nahitaez ordaintzeko epean egiten bada, berriz, bi epe ordaintzen ez badira, berehala, ordaintzeko dagoen zorraren guztizko zenbatekoa ordaintzeko eskatuko da, premiamendu-bidetik, eta ez da emango zorra nahitaez ordaintzeko epean ordaintzeko eperik (Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 61.5. artikuluak arautzen duena).

*19. artikulua. Prozedura laburtua. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiriak.*

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiri helbideratuei aplikatuko zaie sistema hau, kontzeptu hauei dagozkienean eta baldintza hauek betetzen direnean:

1. Kontzeptuak.

— Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

— Hiri- eta landa-ondasun higiezinen gaineko zerga.

2. Eskakizunak.

a) Orokorrak.

— Interesdunak (ordainagirien titularrak) edo haren ordezkariak eskatzea prozedura hasteko.

— Interesdunak adieraztea zer ordainagiriri aplikatu nahi dien prozedura.

— Ordainagiria(k) borondatez ordaintzeko epean egotea.

— Ordainagiria(k) helbideratuta egotea edo prozedura laburtua aplikatzeko eskatzerakoan helbideratzea.

— Sistemak zergaldi bakarrean izatea ondorioak.

— Eskatzaileak nahitaez ordaintzeko epean dagoen zorrik ez izatea. Halako zorrik baldin badu, eskabidea izapidetu, eta horren berri emango zaio Bilketa Bulegoari, zergadunaren egoeraren arabera esku har dezan.

— Ordainagiria(k) zer kontutan dagoen/dauden helbideratuta, zorra kontu horretan zordunketa bidez ordaintzea.

— Zorraren guztizko zenbatekoa sortzen den ekitaldi berean ordaintzea.

3. Eskaerak.

Ordaintzeko obligaziodunak edo haren ordezkariak eskatuko du zorra zatikatuta ordaintzeko sistema berezia aplikatzeko, berariazko formularioaren bidez, borondatez ordaintzeko epean; alde horretatik, zer egunetan amaitzen den ordainagiria(k) borondatez ordaintzeko epea, orduan amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

Zorraren guztizko zenbatekoa sortzen den ekitaldi berean ordaindu behar denez gero, zehazteko hilabeteko zenbat kuotatan zatikatu daitekeen gehienez ere ordainketa, eskabidea aurkezteko eguna hartuko da kontuan.

4. Ondorioak eta balioa.

— Eskabidea behar bezala betetzen bada eta artikulu honek ezartzen dituen eskakizunak betetzen badira, automatikoki onartzen dela joko da, aurkezten den egunetik bertatik, eta zergaldi bakarrean izango ditu ondorioak.

— Ordainketa-sistema hau aplikatzea onartzen bada, ez da sortuko berandutze-interesik, eta ez da jarri beharko bermerik.

2. En los fraccionamientos, cuando hayan sido solicitados en periodo voluntario, de no pagarse a su vencimiento dos plazos, se considerarán vencidas todas las fracciones pendientes, iniciándose el periodo ejecutivo y procediéndose, sin más trámites, a dictar providencia de apremio por la deuda no pagada.

Cuando los fraccionamientos hayan sido solicitados en periodo ejecutivo, de no pagarse a su vencimiento dos plazos, se procederá inmediatamente por la vía de apremio por la totalidad de la deuda pendiente, sin habilitación del plazo de ingreso de deudas en periodo ejecutivo previsto en el artículo 61.5 de la Norma Foral 2/2005, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 19. Procedimiento abreviado. Recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva.*

Este sistema se establece para los recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva domiciliados, de los conceptos, y en las condiciones y términos que se indican a continuación:

1. Conceptos.

— Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

— Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana y rústica.

2. Requisitos.

a) Generales.

— El procedimiento se inicia a solicitud de la persona interesada (titular de los recibos), o su representante.

— La persona interesada indicará el/los recibo/s a los que quiere que sea aplicado este procedimiento.

— El recibo debe encontrarse en periodo voluntario de pago.

— El recibo debe estar domiciliado o, ser domiciliado en el momento de la solicitud.

— El sistema surte efectos en un único periodo impositivo.

— La persona solicitante no debe tener deuda pendiente de pago en periodo ejecutivo, o, en caso de tenerla, se tramitará la solicitud, comunicando a la Oficina de Recaudación la misma para que proceda en consecuencia en relación con la situación del contribuyente.

— El pago se efectuará mediante cargo en la cuenta de la domiciliación bancaria.

— El pago total de la deuda se efectuará en el mismo ejercicio que el de su devengo.

3. Solicitudes.

La persona obligada al pago o su representante solicitará acogerse al sistema especial de pago fraccionado en el formulario específico existente al efecto, durante el periodo voluntario de pago, finalizando el plazo de presentación de solicitudes el día que finalice el plazo de pago en periodo voluntario del recibo de que se trate.

Dado que el pago total de la deuda debe efectuarse en el mismo ejercicio que el de su devengo, para la fijación del número máximo de cuotas mensuales en los que se pueda fraccionar el pago, se tomará en cuenta la fecha de presentación de la solicitud.

4. Efectos y validez.

— Si la solicitud, debidamente cumplimentada, cumple con los requisitos indicados en este artículo se entenderá automáticamente concedida desde el mismo día de su presentación y surtirá efectos únicamente para un periodo impositivo.

— En caso de concesión, este sistema de pago fraccionado se entiende concedido sin interés de demora ni necesidad de depósito de garantía.

EK\CV GAO-I-2016-08973

— Ez badira betetzen artikulu honek ezartzen dituen eskakizunak, dagokion ebazpena emango du organo eskudunak, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

5. Epeak dagokion egunean ez ordaintzearen ondorioak.

Bi epe ordaintzen ez badira, ordaintzeko dauden gainerako epeak amaitu egin direla joko da, eta nahitaez ordaintzeko epea hasiko da: besterik gabe, ordaindu gabeko zorra ordaintzeko premiamendu-probidentziak emango dira.

6. Alkatetzaren dekretu bidez, prozedura laburtua aplikatzeko berariazko baldintzak ezarri ahalko dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainagirien ordainketa zatikatzeko, ibilgailuen potentziaren eta ibilgailu motaren arabera, baita ondasun higiezinen gaineko zergaren ordainagirien ordainketa zatikatzeko, ondasunen erabileraren arabera.

Era berean, Alkatetzaren dekretu bidez, ezarri ahalko da zenbatekoak izan beharko duten gutxienez ordainagiriek prozedura laburtua aplikatzeko, eta, dagokionean, kuoten gutxieneko zenbatekoa ere ezarri ahalko da.

7. Alkatetzaren dekretu bidez, aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboko beste zerga batzuei aplikatu ahalko zaie ordainketa zatikatzeko prozedura laburtua.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

*Bakarra.*

Honako hauek indargabetzen dira: zergen eta zuzenbide publikoko tokiko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena arautzen duen ordenantza orokorraren 70.-112. artikuluak eta ordenantza horren barruan ordenantza honen kontrakoak diren gainerako xedapenak –1999ko otsailaren 24ko osoko bilkuran onartu zen ordenantza hori, eta 2002ko azaroaren 27ko osoko bilkuran onartutako erabaki bidez aldatu–.

VIII. AZKEN XEDAPENA

*Bakarra. Indarrean jartzea.*

Argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean testua, eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte egongo da indarrean.

Ordenantzaren behin betiko onespenak amaiera emango dio administrazio-bideari. Haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, haren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, egoki irizten den beste edozein aurkezteko aukeraz gainera.

Irun, 2016ko abenduaren 21a.—Kontuartzaietza nagusia.
(8973)

— En caso de no cumplir los requisitos, el órgano competente adoptará la correspondiente resolución que será notificada a la persona interesada.

5. Consecuencias del impago en las fechas de pago previstas.

De no abonarse a su vencimiento dos plazos, se considerarán vencidas todas las fracciones pendientes, iniciándose el periodo ejecutivo y procediéndose, sin más trámites, a dictar providencias de apremio por la deuda no pagada.

6. Por Decreto de Alcaldía, se podrán establecer condiciones específicas de aplicación de este sistema de fraccionamiento por procedimiento abreviado relativas a los recibos del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica susceptibles de acogerse a este procedimiento en función de la potencia y clase de los vehículos, y, a los recibos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles susceptibles de acogerse a este procedimiento en función de su destino.

Asimismo, por Decreto de Alcaldía, se podrán establecer los importes mínimos de los recibos que pueden acogerse al sistema así como, en su caso, el importe mínimo de las fracciones.

7. Por Decreto de Alcaldía, este procedimiento abreviado de concesión de fraccionamientos de pago podrá extenderse a otros tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

*Única.*

Quedan derogados los artículos 70 a 112 de la Ordenanza Fiscal General de Gestión, Recaudación e Inspección de los tributos y otros ingresos de derecho público locales aprobada en sesión plenaria de fecha 24 de febrero de 1.999 y modificada por acuerdo adoptado en sesión plenaria celebrada en fecha 27 de noviembre de 2.002, así como el resto de las disposiciones de dicha Ordenanza que se opongan a lo establecido en la presente Ordenanza.

VIII. DISPOSICIÓN FINAL

*Única. Entrada en vigor.*

El texto entrará en vigor al día siguiente de su publicación, siguiendo en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

La aprobación definitiva de la Ordenanza pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su publicación, con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, a 21 de diciembre de 2016.—El interventor general.
(8973)

EK\CV GAO-I-2016-08973